

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

“Gobernu irekia, politika eta demokrazia parte-hartzailea” jardunaldia izango da NAPIn maiatzaren 7an, astelehenarekin

"Administrazio Irekiaren Astearen" baitan, hitzaldiak eta ponentziak emango dituzte bost adituk

Osteguna, 2018.eko maiatzak 3

Maiatzaren 7an, astelehenarekin, “Gobernu irekia, politika eta demokrazia parte-hartzailea” izeneko jardunaldia izango da Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan (NAPI). Administrazio irekiko zenbait adituk hiru hitzaldi eta bi ponentzia emango dituzte.

Jardunaldia Herritarren Arreta eta Parte Hartze Zerbitzuak antolatu du, eta Herritarrekiko eta Erakundekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok inauguratuko du. Hark lehenengo konferentzialariari, Daniel Innerarityri, emango dio hitza. Lehenengo hizlari hori filosofia politikoan eta sozialean katedraduna da, IKERBASQUEko ikertzailea da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Gobernantza Demokratikoaren Institutuko zuzendaria da. “Entender la política para poder participar” izenburua duen hitzaldia emango die bertaratuei.

Ondoren, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko irakasle eta Gobernuoko, Administrazioiko eta Politika Publikoko Ikerketa Taldeko presidente Cecilia Güemes-ek “La geología del gobierno abierto” izeneko hitzaldia emango die bertaratuei. Hurrengo hitzaldia Fernando Pindadok zuzenduko du, zeina Bartzelonako Udaleko Parte Hartze eta Demokrazia Aktiboko komisiaduna baita gaur egun. Haren hitzaldiak “Retos de la gobernanza y la democracia participativa en las políticas públicas” izena du.

Hitzaldi horiek guztiak amaitutakoan, parte-hartzaileek hitz egin ahal izango dute hizlariekin, haiek eman dituzten hitzaldien edukiari buruz.

Jardunaldia amaitzeko, beste bi mintzaldi emango dira. Lehena Juan Miguel Márquezek emango du, “La demanda y uso de Gobierno Abierto en España” izenekoa. Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Behatoki Nazionalako Politika Publikoen Saileko arduraduna da Márquez. Bigarrena Catalina Uzcangak emango du, “Las demandas de participación percibidas en la ciudadanía de Navarra” izenekoa. Hizlaria, CIES enpresakoa, Soziologian doktorea da.

[Jardunaldi](#) honetara joan nahi dutenek alde zuzenean eman behar dute izena, [esteka](#) honetan.